

2022ko azaroaren 9a



## PRENTSA OHARRA

### **SENPEREKO HERRIAK MEDIKUNTZAKO MATERIALAREN BIRZIKLATZEA SUSTENGATZEN DU**

Hondakinak Murrizteko Europako Astearen kariatara, Senpereko Herriak, Biltagarbi eta AIMA elkartearekin elkarlanean, hiru bilketa-ekintza antolatzen ditu medikuntzako ekipamenduak biltzeko.

Senpereko herriak hondakinak murriztearen aldeko engaiamenduan jarraitzen du.

#### **Medikuntzako materialaren bilketa, AIMA elkartearentzat**

Aurten Senpereko herriak eta Biltagarbik, medikuntzako material bilketa bat antolatzen dute, Salieseko AIMA elkartearentzat.

Material ttipia uzten ahalko da, hala nola bermagailuak, makolak, bururdi altxagailuak, dutexako aukitxoak...

Bilketa 2022ko azaroaren 21ean iraganen da astelehenarekin, eta azaroaren 25ean ostiralarekin, 09:00etatik 12:00etara, eta azaroaren 23ean asteazkenarekin, 14:00etatik 17:30era, Zuraideko errepidean lakutik hurbil kokatua den Herriko Etxeko zerbitzu teknikoen egoitzan.

Ekarria izanen den materiala AIMA elkarteari emana izanen zaio. Elkarte honek materiala berriz antolatzen du, Europa-ekialdeko edo Afrikako medikuntza-etxeetan erabilia izateko.

**Mairie de Saint-Pée-sur-Nivelle**  
**Service Communication – 05 59 54 54 57**  
**Plus d'infos <https://saintpeesurnivelle.fr/>**